

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
Irudien Irakurketa eta Ekoizpen Tailerra	151341	2025-2026
Titulazioa	Maila	Sehilekoa
Haur Hezkuntzan Gradua	4.	2.
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Oinarrizko formakuntza	6	Euskara
Irakaslea(k)		
Pello Ulazia Ibarzabal		

Justifikazioa

Irudien Irakurketa eta Ekoizpen Tailerrak ikus-entzunezko komunikazio eta irudikapenaren esparru konplexura hurbilduko gaitu, Haur Hezkuntzaren testuinguruan.

Gaur egungo munduan, indar handia hartu dute irudiek eta ikus-entzunezko lengoaiak. Hain da handia ikus-entzunezkoek komunikatzeko, eragiteko eta iradokitzearen duten indarra, gaitza egiten zaigu mundu hori menderatzea, eta erronka handia bilakatu da hezitzaileentzat.

Beraz, inoiz baino garrantzitsuagoa dugu ikus-entzunezko hizkuntza horretan bat egiten duten mekanismo guztiak ulertzea; beraiek aztertu eta sakontzea, sortzeko eta emozioak helarazteko baliabide baitira. Modu horretan, hobeto ulertuko ditugu zenbateko eragina duten irudiek, faktore estetiko eta adierazkorren indarra; eta, horrez gainera, Haur Hezkuntzan, inteligentzia bisuala landuko dugu, pertzepzioaren eta irudikapenaren hasierako etapetan hasita.

Aurrebaldintzak

Ikasgai hau egin ahal izateko alde aurreko baldintzarik ez dago.

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

TALDE LANA

G.O. 2. maila: Taldearen sendotze eta garapenean ekarpena egin, komunikazioa, zereginen banaketa orekatua, barne giroa eta kohesioa sustatuz.

Berriazko gaitasunak

BG1 – ANALISIA – Irudia eta ikus-entzuneko proiektu artistikoak **modu kritikoan** eta taldean **aztertu**, hauek txertatuta dauden testuinguru sozio-kulturala aintzat izanik, informazio bisuala aukeratzen ikasi eta eraginkortasunez erabiltzeko.

BG2 – ESPERIMENTAZIOA - BALIOZTATZEA - Lantaldean arituz eta *feed-back* bidezko interakzioa sustatuz, irudiek eta ikus-entzuneko ekoizpen artistikoek errealitatearen pertzepzio zein interpretazioan duten garrantziaz jabetu, norbanakakoaren formakuntzan zein formakuntza kultural eta sozialean egiten duen ekarpena identifikatu, eta eskaintzen dituzten ezagutza zein baliabideekin **esperimentatu**, kritikoki **balioztatu** eta gozatu.

BG3 – SORKUNTZA - Hizkuntza bisualari lotuta dauden **proiektu pedagogikoak** taldean **gauzatu** IKTak modu egokian erabiliz; arteak eskaintzen duen diziplinarreko ikuspegiaz eta konpartitutako ikaskuntza eta lanerako beharrezkoa den interakzioa sustatuz.



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgaian



Genero-berdintasuna | Generoen arteko berdintasuna lortzea, eta emakume eta neskato guztiak ahalduntzea (KOG)

- Genero, genero-berdintasun eta generoagatiko diskriminazio kontzeptuak ezagutu, generoarekin lotuta dauden diskriminazioak, indarkeriak eta desberdintasunak hartzen dituzten askotariko formak bezala (esate baterako, nola Artearen Historia gizonezkoek ezarritako istorio bat izan den, non emakumeei arte ikasketak burutzea ukatu zaien; emakumeen artelanak gizonezkoen sinadurarekin plazaratu izan diren edo emakumeen artelanak izateagatik itzalperatuak eta baztertuak izan diren), eta genero-berdintasunak ezaren egungo arrazoiak eta arrazoi historikoak ulertu.
- Genero-berdintasuna eta genero aniztasunaren errealitatea ulertu "Irudiak" eskaintzen dituen ahalmen estetiko, politiko eta komunikatiboetatik (Hizkuntza Plastiko eta bisualren, irudiaren irakurketa eta eraikuntza kritikoa jorratu).



Lurreko ekosistemen erabilera iraunkorra babestea, berrezartzea eta sustatzea, basoak iraunkortasunez kudeatzea, desertifikazioari aurka egitea eta lurren degradazioa eta biodibertsitate-galera geldiaraztea (KOG)

Heziketa Estetikoaren eta "Irudiaren" bitartez kontzientzia ekologikoa garatu (teknika artistiko ezberdinak jorratuz naturarekin erlazionatzen gaituen jarduera plastikoak burutu).



Hiri eta komunitate iraunkorrak | Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, sendoak eta iraunkorrak izatea lortzea (KOG)

Heziketa Estetikoaren eta "Irudiaren" bitartez gizakiaren oinarrizko behar fisiko, sozial eta psikologikoak ulertu (teknika artistiko ezberdinak jorratuz komunitate iraunkor batekin erlazionatzen gaituen jarduera plastikoak burutu).

Edukiak

IRUDIAREN IRAKURKETA:

- Ikusizko pertzepzioa
- Irudiaren funtsezko elementuak
- Irudiaren osagaiak/material adierazgarriak
- Ikus-komunikazioaren oinarrizko ezaugarriak
- Irudien irakurketa
- Ikus-entzunezko kamera eta sormena
- Komunikazio grafikoa

IRUDIAREN EKOIZPENA:

1- IRUDIA. SORTU ETA IRAKURRI

- 1.1- IRUDIAREN ERAIKUNTZA (LAN ABSTRAKTUA):
Espazioaren, formen eta materialen interakzioak.
 - . Espazio antolakuntza
 - . Kolorea, lerroa, forma...
 - . Konposizioa
- 1.2- ERREPRESENTAZIO IRUDIAREN ERAIKUNTZA (ILUSTRAZIOA):
Errepresentazio irudiaren, formen eta materialen harremanak.
 - . Errepresentazio irudia
 - . Materialak
 - . Konposizioa

2- KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

2.1- IKUS MEZUA ETA KOMUNIKAZIOAREN ERAIKUNTZA (FOTO-COLLAGEA):

. COLLAGEAREN OINARRIAK:

- . Euskarria, konposizioa, materialak eta interakzioak
- . FOTO-COLLAGEA.: Materialen eta fotoen harremanan plastikoa. Irudiaren eraikuntza eta komunikazioa.
 - . Fotoa testuinguruz kanpo.
 - . Formen, testuren, koloreen... loturak.
 - . Esan nahi eta sinbolismo berriak.

2.2- ILUSTRAZIOA ETA NARRAZIOA. ADIERAZPEN NARRATIBO "ALTERNATIBOAK" (IPUIN ILUSTRATUA):

- . IDATZIZKO NARRAZIOA: ANIZTASUNARI ERANTZUNA ESKOLA INKLUSIBOAN.
 - . Aniztasunetik berdintasunera.
 - . Ekologia integrala.
- . ILUSTRAZIOAREN ERAIKUNTZA MATERIKOA: Irudiaren eta materialen harremanan plastikotik.
 - . Euskarria
 - . Irudia, materialak, formak... (adierazpen berriak)
 - . Konposizioa

3- KAMERA ETA IKUS-ENTZUNEZKOA. SORMENA ETA KOMUNIKAZIOA

3.1- ARGAZKI IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA. FOTOERAIKUNTZA. IRUDIAREN ERAIKUNTZA ETA KOMUNIKAZIORAKO OINARRIEN LANKETA (POESIA BISUALA):

- . Argia
- . Konposizioa
- . Enkuadrea
- . Sintesia
- . "Etenak"
- . Karga poetikoa

3.2- FOTORREPORTAIA. PAISAIAREN KONTZEPTUA ETA KOMUNIKAZIORAKO OINARRIEN LANKETA (PAISAIA):

- . Paisaiaren unitatea (orokorra)
- . Paisaiaren singularitatea (xeheetasunak)
- . Paisaia eta pertsonak (harremanak)

3.3- IKUS-ENTZUNEZKOA (Talde lana). NARRATIBA BISUALAREN OINARRIAK (BIDEOA):

- . Irudiak jaso edo sortu.
- . Denborak, erritmoak soinuak...
- . Muntaketa eta postprodukzioa.

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Testuinguruan kokatzeko eta hausnarketarako ariketak. Irudien mundura hurbilduz, adierazpide artistiko gisa hartuta; hausnarketa kritikoa eginez, norberaren pertzepzioak eta usteak zalantzan jarri eta, horien ordean, beste alternatiba eta erantzun batzuk bilatuz. (ECTS %15,66)

Ikus-entzunezkoak ikusiz, testuak aztertuz, eta eztabaidarako irakurraldiak antolatuz, ikasleei bidea emango zaie komunikabideen eta ikus-entzunezkoen kulturaren gaineko gogoeta egin dezaten. (ECTS %13,66)

Kontzeptualizazio ariketak. Ariketa hauen bitartez, ikasleek errealitatea behatu eta bereganatzeko saioa egingo dute, irudien esparru berezi horretatik abiatuta. Ariketon artean dira, besteak beste, irakasleak egindako azalpen teorikoei jarraitzea, ikasleek eurek azalpenak egitea, irakurgai eta saioen laburpenak egitea, teorien azterketa konparatiboa egitea, eta ikerketa txikiak egitea. (ECTS %31)

Esperimentazio aktiboko ariketak. Kontzeptuak ezartzerakoan ikasleen gaitasunak garatzeko ariketak izango dira: proiektuak eratzea, ariketak diseinatzea, arazoak konpontzea, dilemak aztertzea, eta kasuen analisia. (ECTS %28).

Ebaluazio ariketak. Irudi bidezko aurkezpenak, ikus-entzunezko aurkezpenak, eta aurkezpen idatziak egitea, arlo honi buruz eta arloak dakartzan erronkei buruz. Ikasleek kasuan-kasuan egin dituzten parte-hartzeak zehaztea, edota hainbat eratako txostenak egitea. (ECTS 11,66%).

Ebaluazioa

OHIKO EBALUAZIOA:

BAKARKAKO LANAK (%60)

TALDEKA EGINDAKO LANAK (%40)

EZ OHIKO EBALUAZIOA:

BAKARKAKO LANAK (50%)

AZTERKETA (50%)

Adimen artifizialaren erabilera:

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea.

Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikulua arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

Dokumentazioa

- AAVV, (2001). La Educación Visual y Plástica hoy. Graó.
- AGIRRE, I. (2000). Teorías y prácticas de la Educación Artística. Ideas para una revisión pragmática de la experiencia estética. Pamplona. Universidad Pública de Navarra.
- ALCAIDE, Carmen. (2003). Expresión Plástica y Visual para educadores. Madrid. Publicaciones ICCE.
- APARICI, R./VALDIVIA, M./GARCÍA MATILLA, A., (1990). Iniciación a la lectura de imagen y al conocimiento de los medios audiovisuales. Madrid. Universidad Nacional de Educación a Distancia
- ARNHEIM, Rudolf, (1989). Arte y Percepción visual. Madrid. Alianza forma
- AUMONT, J., (1992). La Imagen. Barcelona. Ediciones Paidós
- DONDIS, D. A., (1976). La sintaxis de la Imagen. Introducción al alfabeto visual. Barcelona. Edit. Gustavo Gili.
- ECO, Humberto. (2004). Historia de la belleza. Barcelona. Editorial Lumen.
- EISNER, Elliot W.(2004). El arte y la creación de la mente. Barcelona. Paidós.
- EISNER, Elliot W.(1995). Educar la visión artística. Barcelona. Paidós.
- GÜELL, Manel. (2013). El arte y la belleza. Barcelona. Ediciones Octaedro S.L.
- HARGREAVES, David j. (1991). Infancia y Educación Artística [Vol.] Madrid Morata, Centro de publicaciones del Mec, D.L.
- HENRY, Michael. (2008). Ver lo invisible. Madrid. Siruela.
- LOWENFELD, V./LAMBERT,W., (1972). Desarrollo de la capacidad creadora. Buenos Aires. Editorial Kapeluz.
- PARINI, Pino (2002). Los recorridos de la mirada. Barcelona. Editorial Paidós
- ROBINSON, Ken. (2015). Escuelas Creativas. Grijalbo.